

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1340

EBAZPENA, 2016ko martxoaren 18koa, Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria-rena, zeinaren bidez zehazten baita Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zer xedapen indargabetu dituen Auzitegi Gorenaren 2015eko irailaren 3ko epaiak.

2015eko irailaren 3an, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren Bosgarren Sekzioak epaia eman zuen, 3408/2014 kasazio-errekurtsoan. Epaia horren bidez, erabat deusezak deklaratu zituen Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zenbait xedapen, zehazki saltoki handietarako gehieneko azalera mugatzen dutenak, ez baitituzte betetzen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua eta azaroaren 23ko 17/2009 Legea. Aipatu plana Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurilaritzaren Kontseiluaren abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuaren bidez onartu zen.

Epaia aztertuta, eta kontuan hartuta han ez dela zehaztu Lurraldearen Arloko Planaren zein xedapen indargabetu den, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, martxoaren 16an egindako 1/2016 osoko bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuen, aho batez:

«Saltoki handietarako gehieneko azalera mugatzen duten Antolamendu Arauen xedapenetatik, epaiak erabat deusezak deklaratzeko dituenak 14. artikuluan 2. paragrafoko c) eta d) letrak dira; 14. artikulua saltoki handien lurralde-erregulazioari buruzkoa da».

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 18a.

Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria,
FERNANDO URIONDO ISPIZUA.